



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko OHIKOA

GEOGRAFIA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2025

GEOGRAFÍA

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

- Proba idatzi honetan **3 ariketa egin** behar dituzu.
- Ariketak hiru multzotan banatuta daude:
A multzoa (4 puntu): A1 eta A2 aukeren artean, hautatu bat. Testu, mapa, grafiko eta irudien iruzkinak edo kokapenak ondo eginak egotea hartuko da kontuan.
B multzoa (4 puntu): B1 eta B2 aukeren artean, hautatu bat. Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko dira kontuan.
C multzoa (2 puntu): testu koherente bat idaztea (6 eta 10 lerro artekoa), aurkezten diren 6 kontzeptuetatik 4 gutxienez erlazionatzen dituenak.

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea

A MULTZOA. (4 puntu)

A1 eta A2 aukeren artean, hautatu bat

A1.- Kokatu Europar Batasuna osatzen duten herrialdeak (erantzun-orrian osatu zenbaki zerrenda ordenatu bat -1etik 27ra-, eta adierazi bakoitzari dagokion herrialdearen izena: adibidez, 1. Portugal). (4 puntu)

Testuingurua: “*Europar Batasunaren Tratatua: Europar Batasunari atxikitzea. Hautagarritasuna*”
“EBra atxiki nahi duen herrialde orok behar du:

- Europako estatua izatea;
- Europar Batasunaren Tratuaren (EBT) 2. artikuluan zehaztutako balioak errespetatzea eta horiekin konpromisoa hartzea, hau da: giza duintasunaren, askatasunaren, demokraziaren, berdintasunaren eta zuzenbide-estatuaren errespetua; giza eskubideen errespetua, gutxiengoetako pertsonen eskubideak barne; eta gizarte pluralistaren errespetua, bai eta diskriminaziorik eza, tolerantzia, justizia, elkartasuna eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ere.” <https://eur-lex.europa.eu/>



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA


2025eko OHIKOA

GEOGRAFIA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2025

GEOGRAFÍA



A2.- Klimogramaren iruzkina egin, eta dagokion landaretza potentziala zein den adierazi.
(4 puntu)

Testuingurua: “Parisko Akordioari jarraikiz, herrialdeek erabaki zuten berotegi-efektuko gasen munduko isuriak nabarmen murriztea, ahalbidetzeko epe luzera azaleraren batez besteko tenperatura globalaren igoera industriaurreko maila dagokienez 2 °C-tik oso behera mantentzea, eta 1,5 °C-ra mugatzeko ahaleginekin jarraitzea. COP 26, 27 eta 28etan, herrialdeek nabarmendu zuten klima-aldaketaren ondorioak askoz txikiagoak izango liratekeela tenperaturaren igoera 1,5 °C-koa izango balitz, 2 °C-rekin alderatuta, eta berotze globala 1,5 °C-ra mugatzeko ekimenekin jarraitzeko erabaki irmoa adierazi zuten. <https://www.un.org/es/climatechange/> Gutxi gorabehera ekosistemen % 4k jasango du mota bateko edo besteko aldaketaren bat, 1,5 °C berotuz gero. Eraldaketa horrek % 13ri eragingo dio, 2 °C berotuz gero.”



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA


2025eko OHIKOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2025

GEOGRAFIA

GEOGRAFÍA



B MULTZOA (4 puntu)

B1 eta B2 aukeren artean, hautatu bat

B1.- Hiri-egitura. Zeintzuk dira alde zaharraren, zabalgunearen eta periferiaren ezaugarriak? Bukatzeko, erlazionatu zure erantzuna testuarekin. (4 puntu)

Testua: "Garapen Jasangarriko Helburuen 11. helburuaren nahia da hiriak eta giza kokalekuak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea. Munduko biztanleria 8.000 milioi pertsonara iritsi zen 2022an, eta horietatik erdiak baino gehiago hiriguneetan bizi dira. Aurreikusten da kopuru horrek gora egingo duela eta 2050erako biztanleen % 70 hirietan biziko dela. Hala ere, hiri horietako asko ez



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko OHIKOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2025

GEOGRAFIA

GEOGRAFÍA

daude prest urbanizazio azkar horretarako, eta etxebizitzaren, azpiegituren eta zerbitzuen garapena gainditu egiten da, eta horrek auzo marjinalen edo antzeko baldintzen hazkundea eragiten du. Planifikatu gabeko hiri-garapenaren ondorioetako batzuk honako hauek dira: bazterreko auzo erraldoiak, trafikoaren pilaketa, berotegi-efektuko gasen isuriak eta aldirien ugaritzea mundu osoan. 11. helburua lortzeko, ahaleginak hiri-garapen inklusibo, erresiliente eta iraunkorreko politikak eta praktikak aplikatzean zentratu behar dira, lehentasuna emateko oinarritzko zerbitzuak eskuratzeari, arrazoizko prezioetan etxebizitza eskuratzeari, garraio eraginkorrari eta mundu guztiarentzako berdeguneei”.
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/cities/>

B2.- Zein sektoretan espezializatzen da gaur egun industria Euskal Autonomia Erkidegoan? Nola banatzen dira espazioan? Bukatzeko, erlazionatu zure erantzuna testuarekin (4 puntu)

Testua: “Lurzoruaren degradazioa gero eta arazo handiagoa da Europan, Europako lurzoruaren % 60 baino gehiago degradatuta edo degradatzeko arriskuan dago higaduraren, materia organikoaren galeraren eta kutsaduraren ondorioz, Lurzorua Babesteko EBren 2030erako Estrategian jasota dagoen bezala. Ildo horretan, lurzoruaren zaintzari eta erresilientziari buruzko Zuzentarau Proposamenak, Europako Parlamentuak jada onartuak, lurzoruaren osasuna monitorizatzeko eta kalitatea lehengoratzeko arau esparru bat ezartzea du helburu, erabilera jasangarria sustatuz. Neurri nagusien artean, estatu kideek kutsatuta egon daitezkeen guneak identifikatzea eta berreskuratzea nabarmentzen da... Ekintza horiek **“kutsatzen duenak ordaintzen du”** printzipioaren barruan kokatzen dira, eta kutsatzaileek berreskuratze-kostuak beren gain hartzea eskatzen dute. Euskal Autonomia Erkidegoan, araudi horrek batez ere administrazioei eragingo liekeen arren, industriaren gaineko eragina ere esanguratsua izango litzateke kutsaduraren erantzukizunari dagokionez. Horrek ingurumen-inpaktu handiko sektoreei eragingo lieke, hala nola industria kimikoari, metalurgikoari eta energetikoari.” **EKONOMIA ZIRKULARREKO INGURUMEN-ZAINTZA ESTRATEGIKOKO TXOSTENA. 2025ERA KO 10 GAKOAK.** <https://www.ihobe.eus/albisteak/eaeko-enpresen-lehiarako-10-gakoak-ekonomia-zirkularreko-testuinguru-batean>

C MULTZOA (2 puntu)

C.- Idatzi testu koherente bat (6 eta 10 lerro artekoa), aurkezten diren 6 kontzeptuetatik 4 gutxienez erlazionatzen dituen:

- Errola
- Biztanleriaren berezko hazkundea



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko OHIKOA

GEOGRAFIA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2025

GEOGRAFÍA

- Biztanleriaren benetako hazkundera
- Bizi-itxaropena
- Biztanleriaren zahartzea
- Geografia

GEOGRAFIA / GEOGRAFÍA

A MULTZOA (4 puntu)

A1.- Kokatu Europar Batasuna osatzen duten herrialdeak (erantzun-orrian osatu zenbaki-zerrenda ordenatu bat -1etik 27ra-, eta adierazi bakoitzari dagokion herrialdearen izena: adibidez, 1. Portugal). **(4 puntu)**

- Herrialdeen izenak ondo idatzita eta ordenan: **(0,4 puntu)**

Herrialdeen kokapena **(3,6 puntu)**:

1. Portugal	10. Austria	19. Bulgaria
2. Espainia	11. Txekiar Errepublika	20. Errumania
3. Frantzia	12. Eslovakia	21. Polonia
4. Irlanda	13. Hungaria	22. Danimarka
5. Belgika	14. Eslovenia	23. Lituania
6. Herbehereak	15. Kroazia	24. Letonia
7. Luxenburgo	16. Malta	25. Estonia
8. Alemania	17. Zipre	26. Finlandia
9. Italia	18. Grezia	27. Suedia

A2.- Klimogramaren iruzkina egin, eta dagokion landaretza potentziala zein den adierazi. **(4 puntu)**

Iruzkinaren koherentzia, kohesioa, zuzentasun gramatikala, lexikoa eta ortografikoa izatea: **(0,4 puntu)**

Iruzkinaren garapena **(3,6 puntu)**:

- ✓ Klima ozeanikoa. Prezipitazioak ugariak eta erregularrak dira (urteko kantitatea >800 mm). Eurien banaketa nahiko erregularra da, eta fronte polarreko borraskek etengabe jarduten dute. Prezipitazio gehien neguan daude, borraska horien maiztasuna handiagoa delako, eta udan minimo erlatibo bat dago, Azoreetako antizikloiaren eraginez. Anplitude termikoa txikia da, itsasoaren eraginari esker (9 °C eta 12 °C tartean). Uda freskoa da (batez besteko tenperatura ez da hilabete batean ere 22 °C-koa edo handiagoa). Negua moderatua da (hilabete hotzeneko batez besteko tenperatura 6 °C eta 10 °C bitartekoa da). Behatokia: Santander (Kantabria). Baso hosto erorkorra, sastrakaria eta belardia.

B MULTZOA (4 puntu)

B1.- Hiri-egitura. Zeintzuk dira alde zaharraren, zabalgunearen eta periferiaren ezaugarriak? Bukatzeko, erlazionatu zure erantzuna testuarekin. **(4 puntu)**

Testua koherentea, kohesionatua, lexikoki, ortografikoki eta gramatikalki zuzena da: **(0,4 puntu)**

Gaiaren garapena **(3 puntu)**:

- ✓ Alde zaharra
 - herentzia historikoa
 - planoen aniztasuna
 - Errenazimentuko, Barrokoko, Ilustrazioko eta industria-garaiko moldaketak.
 - saturazio-, narriadura-, segregazio- eta gizarte-arazoak etab.
 - birgaitze-politikak.
- ✓ Zabalgunea
 - zabalgune burgesa: lauki-formako planoa, eraikuntza-morfologia, bizitegi-funtzio burgesa.
 - hiriko funtzio nagusien egoitza (CBD)
 - bizitegi-funtzioaren beherakada
- ✓ Periferia
 - bizitegi-auzoak: tipologiak eta gizarte-segregazioa
 - dentsitate txikiko bizitegi-eremuak (familia bakarrekoak, eraikin atxikiak)
 - periferiako industriaguneak: industrialdeak; industriagune berriak
 - merkataritza-, ekipamendu- eta azpiegitura-eremuak

Azkenik, bukaerako testuarekiko lotura egokia: **(0,6 puntu)**

B2.- Zein sektoretan espezializatzen da gaur egun industria Euskal Autonomia Erkidegoan? Nola banatzen dira espazioan? Bukatzeko, erlazionatu zure erantzuna testuarekin. **(4 puntu)**

Testua koherentea, kohesionatua, lexikoki, ortografikoki eta gramatikalki zuzena da: **(0,4 puntu)**

Gaiaren garapena **(3 puntu)**:

- ✓ Industria oso espezializatua hiru sektoretan: metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa; erauzketa- eta petrolio-, energia- eta ur-industriak; eta makineria eta ekipo mekanikoa.
- ✓ Beren lehiakortasuna prezio merkean oinarritzen duten eta herrialde merkeagoen lehia jasaten duten sektoreak, eta maila teknologiko eta eskari ertaineko ekipamendu-ondasunetan oinarritzen diren sektoreak.
- ✓ Industria-politikak dibertsifikatu egin nahi du, sektore tradizionalak berrituz eta etorkizuneko sektore berritzaileetan enpresa berriak sortzen lagunduz.
- ✓ I+G+B arloko gastuaren eta parte-hartzearen garrantzia, Espainiako batezbestekoa gainditzen baitu, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen existentzia, hor baitaude, besteak beste, teknologia-parkeak eta zientzia-parkeak.
- ✓ Eskualde mailan, industriaren banaketak triangelu alderantzikatu baten forma hartzen du, hiru hiriburuetan erpinak dituen. Bilboko eta Donostiako nukleoak industria-korridore baten bidez lotzen dira barnealdetik (Ibaizabal eta Deba) eta dentsitate txikiagoko kostaldeko ardatz baten bidez. Eta Gasteiz, bietatik bananduta dago, baina Burgoserako eta Nafarroarako korridoreekin lotuta.
- ✓ Probintzia mailan, kontrastatzen dute, besteak beste, Bilbo Handian Bizkaiak duen eredu polarizatuak, Arabaren Gasteizko makrozefaliak, eta Gipuzkoako banaketa orekatuagoak.
- ✓ Industria-ezarpeneko eremu berriak eta laguntza-planak

Azkenik, bukaerako testuarekiko lotura egokia: **(0,6 puntu)**

C MULTZOA (2 puntu)

C.- Idatzi testu koherente bat (6 eta 10 lerro artekoa), aurkezten diren 6 kontzeptuetatik 4 gutxienez erlazionatzen dituenak.

Testua koherentea, kohesionatua, lexikoki, ortografikoki eta gramatikalki zuzena da: **(0,2 puntu)**

Sortutako testuaren garapena **(1,8 puntu)**:

Edukiak era askotakoak dira, eta aukera guztiak zuzenak izan daitezke.